



2013

**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**  
**Memoria Departamento Programa - GASTOS**

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
<b>05. Ogasuna eta Finantzak</b> <b>05. Hacienda y Finanzas</b>	<b>04. Finantzak, Aurrekontuak eta Ondarea</b> <b>04. Finanzas, Presupuestos y Patrimonio</b>	<b>610.201</b> Aurrekontuak eta Kontrol Ekonomia <b>610.201</b> Presupuestos y Control Económico

Aurrekontuak eta Ekonomiaren Kontrola egitarauaren helburua Foru Arlo Publikoaren jardueraren planak eta aurrekontuak egitea eta haren garapena legeekin, eraginkortasunarekin eta eragingarritasunarekin bat etor dadila bermatzea da, Aldundiak haren jardunerako ezartzen dituen helburuen marko orokorraren barruan.

Azken xede hori betetzeko, fiskalizaziorako prozedurak eta auditoretza prozedurak erabiltzen dira, eta aldi berean kontabilitatea hartzen da Foru Arlo Publikoaren kudeaketaren oinarritzko osagarritzat.

Fiskalizazioaren eremuan,:

Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Administrazioaren Foru Erakunde Autonomiadunen ekonomi garrantzizko egintzak fiskalizatu behar dira. Fiskalizazio horrezaz gain, honako jarduketok nabarmendu behar dira

Sarreraren arloan:

S5, S6 eta S8 aplikazioetan zerga ezberdinak kudeatzeko zereginarekin zerikusia duten prozesuak bilduko dira.

S8 aplikazioa osotuko da, zerga-bilketako S7 aplikazioarekin lotuz.

Bada, S6 aplikazioan diruzaintza kontrolatzeko modulua garatuko da.

Sail bakoitzak zergen arlokoak ez diren euren sarrera guztiak kudeatzeko aplikazioa osotuko da.

Diruzaintzako koadroko prozesuak analizatzeko eta aztertze eta horiek herri kontabilitatera lekuz aldatzeko proiektuari ekingo zaio.

Ogasunaren informazio-sistema berria diseinatzeko jarraipen xehatua egingo da, helburu horretarako sortutako lan-taldeetan parte hartuta.

El Programa Presupuestos y Control Económico tiene como finalidad realizar la planificación y presupuestación de la actividad del Sector Público Foral y garantizar que el desarrollo de la misma se adecue a criterios de legalidad, eficacia y eficiencia dentro del marco general de objetivos que la Diputación determine para su actuación.

Para el cumplimiento de este último aspecto se utilizan tanto procedimientos de fiscalización y de auditoría, como de control de la gestión, al tiempo que se dispone de la contabilidad como elemento básico de la gestión del Sector Público Foral.

En el ámbito de la Fiscalización,

Además de la obligada fiscalización de los actos de trascendencia económica de la Diputación Foral de Bizkaia y Organismos Forales Autónomos Administrativos, cabe destacar las siguientes actuaciones:

En materia de Ingresos:

Se completarán los procesos relacionados con la gestión de los diferentes tributos en las aplicaciones S5, S6 y S8.

Se completará la aplicación S8 relacionándola con la aplicación S7 de recaudación.

En la aplicación S6 se va a continuar desarrollando el módulo de controles de tesorería.

Se completará la aplicación para la gestión por parte de cada Departamento de sus ingresos no tributarios.

Se acometerá un proyecto de análisis y estudio de los procesos del cuadro de tesorería y de su traslado a la contabilidad pública.

Se realizará un seguimiento exhaustivo del diseño del nuevo sistema de información de Hacienda, participando en los grupos de trabajo que a ese fin se creen.

## Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
<b>05. Ogasuna eta Finantzak</b> <b>05. Hacienda y Finanzas</b>	<b>04. Finantzak, Aurrekontuak eta Ondarea</b> <b>04. Finanzas, Presupuestos y Patrimonio</b>	<b>610.201</b> Aurrekontuak eta Kontrol Ekonomia <b>610.201</b> Presupuestos y Control Económico

### Gastuen arloan:

Fakturak kudeatzeko prozesu bat garatuko da eta, hala denean, garatu egingo da; halaber, faktura elektronikoa ezarriko da.

Erakundeetako izaki guztien eskaerei erantzuna emateko aukera emango duen informazio sistemaren optimizazioa aztertuko da.

### Ordainketen eta likidazioen arloan:

Ordainketa epeen kudeaketa optimizatzeko prozesua ezarriko da.

Fiskalizazio-jarduerarekin zerikusia duten prozesuak hobetzeko azterlana egingo da.

Paperean jasotako agiriak euskarri informatikoan jasotzeko aukera aztertuko da.

Auditoretzari dagokionez, hona hemen jarduera nagusienak:

- ✓ 2013ko Urteko Auditoretza Plana (UAP) landu eta onestea. Plan horretan kontrolaren arloko jarduketak hauek azpimarratu behar dira:
  - ❖ Enpresaren Sektore Publikoko Erakundeek urteko kontuen auditoretza-txostenen eraketa eta/edo jarraipena.
  - ❖ Esku hartzea duten erakundeen auditoretzak.
  - ❖ Diru-laguntzen kontrol finantzarioa eta, hala denean, erakunde laguntzaileenak.
  - ❖ Aurretiazko fiskalizazioari lotuta ez dauden espedienteen kontrola: pertsonal kontratuak, aldiro eta jarraika egiten direnak, hiru mila eurotik beherako kopuruetako gastuak, kontratu txikiak eta izendun diru-laguntzak.

### En materia de Gastos:

Se analizará y en su caso se desarrollará un proceso de gestión de facturas así como la implantación de la factura electrónica.

Se analizará la optimización de un sistema de información que permita dar respuesta a las peticiones de los distintos entes institucionales.

### En materia de pagos y liquidaciones:

Se implantará un proceso para optimizar la gestión de los plazos de pago.

Se realizará un estudio para la mejora de los procesos relacionados con esta actividad de fiscalización.

Se analizará la posibilidad de sustitución de la documentación en papel por la de soporte informático.

En el ámbito de la Auditoría las principales actuaciones se concretan en:

- ✓ Elaboración y aprobación del Plan Anual de Auditorías (PAAs) 2013, en el que se incorporan las siguientes actuaciones de control:
  - ❖ Elaboración y/o seguimiento de los informes de auditoría de cuentas anuales de las Entidades del Sector Público Empresarial.
  - ❖ Auditorías de entidades participadas.
  - ❖ Control financiero de subvenciones y, en su caso, de entidades colaboradoras.
  - ❖ Control de expedientes no sujetos a fiscalización previa: contratos de personal, de carácter periódico y de tracto sucesivo, gastos de importe inferior a tres mil euros, contratos menores y subvenciones nominativas.

## Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
<b>05. Ogasuna eta Finantzak</b> <b>05. Hacienda y Finanzas</b>	<b>04. Finantzak, Aurrekontuak eta Ondarea</b> <b>04. Finanzas, Presupuestos y Patrimonio</b>	<b>610.201</b> Aurrekontuak eta Kontrol Ekonomia <b>610.201</b> <i>Presupuestos y Control Económico</i>

❖ Txostenetan azaldu diren mentsa eta akatsen jarraipena egiteko jarduketak.

❖ Actuaciones de seguimiento de las deficiencias expuestas en los informes.

Plana dokumentu irekia da eta Foru Aldundiaren sailek aurrez ezarri ez dituzten eskabide berriak jaso ditzake. Horien onspena Ogasun eta Finantza Saileko diputatuari dagokio, aldez aurretik era egokian bidezkotuta egongo den eskabidea jasota (abenduaren 10eko 226/2007 Foru Dekretuaren 8. artikulua). Inguruabar horien ondorioz aurrekontuan deskribatuko diren helburuak eta ekintzak orientatiboak baino ez dira izango.

El Plan se presenta como un documento abierto a nuevas solicitudes, no previstas inicialmente por los Departamentos de la Diputación Foral, correspondiendo la aprobación de éstas al Diputado de Hacienda y Finanzas, previa solicitud debidamente justificada (art. 8 del Decreto Foral nº 226/2007, de 10 de diciembre). Esta circunstancia hace que los objetivos y acciones descritos en el presupuesto tengan carácter orientativo.

✓ Urteko Auditoretza Plana 2013 burutzea, arauketari helduta, Eragingarritasuna kontuan hartuta, Planeko atazak burutzeko epea luzatu egingo da, ekitaldiaren hasieratik hurrengo ekitaldiaren lehenengo hiruhilekora arte.

✓ Ejecución del Plan Anual de Auditorías 2013, de acuerdo a la normativa, por razones de operatividad el plazo de ejecución de las diferentes tareas incorporadas al plan se extiende desde el inicio del ejercicio hasta finales del primer trimestre del ejercicio siguiente.

✓ Arauketaren ondorioz galdatutako Auditoretzen Urteko Planean jasotako jarduketak alde batera utzita, Auditoretza Zerbitzuak prozesuei eta sistemei buruzko barne-kontrola, politika publikoen ebaluazioa, lankidetzaz-zereginak, aholkularitza eta kudeaketarako laguntza bezalako zereginak burutu ahal izango ditu.

✓ Independientemente de las actuaciones incorporadas al Plan Anual de Auditorías por exigencia normativa, el Servicio de Auditoría podrá llevar a cabo tareas de control interno de procesos y sistemas, evaluación de políticas públicas, así como labores de colaboración, asesoramiento y de apoyo a la gestión.

Azkenik, Aurrekontuen arloari dagokionez:

En lo que al área de Presupuestos se refiere:

Aurrekontugintza eta aurrekontuen aldarazpenak kudeatzea epe ertaineko Ekonomi Abagunearen markoan, eta aldian-aldian sailekin topaketak egin daitezela sustatzea erabakiak hartzen laguntzeko.

Gestionar la elaboración de los presupuestos y sus modificaciones en el marco de un Escenario Económico a medio plazo, fomentando encuentros periódicos con los Departamentos al objeto de facilitar la toma de decisiones.

Aurrekontuak egiteko metodologiaren hobekuntza gisa, Aurrekontuen Agertokiak egiteko aplikazio berria abian jarri da, bai eta aurrekontua kontrolatzeko txostenen informatizazioa ere, Aurrekontuei buruzko Foru Arau Nagusian xedatutakoaren ariora informatu beharreko garrantzi ekonomikoko eragiketarako aintzat hartuta.

Como consolidación de la mejora de la metodología de elaboración de los presupuestos, se pondrá en marcha la nueva aplicación de elaboración de Escenarios presupuestarios, así como la informatización de los informes de control presupuestario a las operaciones de trascendencia económica que se deban informar según lo dispuesto en la Norma Foral General Presupuestaria.

## Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
<b>05. Ogasuna eta Finantzak</b> <b>05. Hacienda y Finanzas</b>	<b>04. Finantzak, Aurrekontuak eta Ondarea</b> <b>04. Finanzas, Presupuestos y Patrimonio</b>	<b>610.201</b> Aurrekontuak eta Kontrol Ekonomia <b>610.201</b> Presupuestos y Control Económico

Bizkaiko Foru Aldundiaren urteko kontu ematea prestatzea, 2012ko Kontu Orokorra Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrari buruzko Foru Arauan ezarri diren epeen barruan aurkeztu ahal izateko Batzar Nagusiei. Hala Herri Kontuen Euskal Epaitegiak bidea edukiko du Gobernu Kontseiluak Kontua onesten duenetik berak txostenak ematen dituen bitarteko aldia apurka-apurka laburtzeko, konpromisoa hartu zuen bezala.

Aurrekontuak argitaratzeko sistema berria eta Kontu Orokorra finkatzea.

Bizkaiko Foru Aldundiaren egoera ekonomiko-finantzazkoaren berri ematea; unean-unean Aurrekontuei buruzko Foru Arau Orokorrean Batzar Nagusiei bidali beharreko agiriez ezarrita dagoena betetzen denez adieraziko da eta beste erakunde batzuei datuak emango zaizkie, erakundeen arteko koordinazioa ona izan dadin.

Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra ezarriko da, eta gisa berean, informatikako aplikazioak egoera berri horretara egokituko dira.

Administrazio-prozesuetan egindako ezarpenaren ondoreak direla eta, Sail guztietan kudeaketa-arloko langileak eguneratu egin beharko dira.

Ekitaldi berri horretan kontuak finkatzeko sistema berria abian jarriko da. Hori dela eta, Foru Sektorre Publikoko sozietateak finantza-sistema berrietara egokitu beharko dira.

Preparar la rendición de cuentas anual por parte de la Diputación Foral de Bizkaia, de modo que la Cuenta General correspondiente a 2012 pueda ser remitida a las Juntas Generales dentro de los plazos establecidos en la Norma Foral General Presupuestaria del Territorio Histórico de Bizkaia, y posibilitando al mismo tiempo que el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas pueda cumplir su compromiso de reducción paulatina del tiempo distante entre la aprobación de la Cuenta por el Consejo de Gobierno y la emisión de sus informes.

Consolidar el nuevo sistema de publicación de los presupuestos así como de la Cuenta General.

Informar de la Situación Económico-Financiera de la Diputación Foral de Bizkaia, dando puntual cumplimiento a lo establecido en la Norma Foral General Presupuestaria en relación a la documentación a remitir a las Juntas Generales, y facilitando datos a otras entidades a fin de colaborar con la necesaria coordinación interinstitucional.

Se implantará el nuevo Plan General de Contabilidad Pública, adaptando asimismo las aplicaciones informáticas a esta nueva situación.

Las implicaciones de esta implantación en los procesos administrativos conllevarán la puesta al día del personal de gestión en todos los Departamentos.

En este nuevo ejercicio se pondrá en marcha el nuevo sistema de consolidación de cuentas por lo que se precisará de una adaptación de las sociedades del Sector Público Foral a los nuevos sistemas financieros.



2013

**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**  
**Memoria Departamento Programa - GASTOS**

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
<b>05. Ogasuna eta Finantzak</b> <b>05. Hacienda y Finanzas</b>	<b>04. Finantzak, Aurrekontuak</b> eta Ondarea <b>04. Finanzas, Presupuestos</b> y Patrimonio	<b>610.201</b> Aurrekontuak eta Kontrol Ekonomia <b>610.201</b> Presupuestos y Control Económico

Bizkaiko Foru Aldundiaren kudeaketa kontrolatzea; horretarako, aldian-aldian txosten zehatzak emango dira, ekitaldian zehar kudeaketa nola dagoen erakusten duten adierazkarien nondik-norakoen berri jakiteko eta Aldundiak ekonomiaren arloan erabakiak hartzeko gauzatzen duen prozesua errazteko. Ildo beretik, Ondasun Higiezinaren gaineko kontrol-sistema berria abian jarriko da, kasuan kasuko kontabilizazioarekin.

Prozesuak etengabe hobetu, urteko helburuak bete eta kontrol ekonomiko zuzena eta aurrekontuaren kudeaketa bikaina burutzeko hartu behar diren jardun berrien aurreikuspena egin nahi badira, langileak espezializatzen joan behar dira. Ondorioz, hurrengo ekitaldian trebakuntza ona izatea eta zereginen egituraren berrantolaketa egitea aurreikusi da.

Gainera, argitalpen-sistema intraneten eta "Bizkaia.net" kanpo webgunean jasoko da, eta bertan arauketa osoa argitaratuko da, Programa honetan bildutako eremuen gain eragina duten garapen egokiekin batera: Fiskalizazioa, Auditoretza, Kontabilitatea eta Aurrekontuak.

Realizar el Control de la Gestión de la Diputación Foral de Bizkaia mediante la emisión de distintos informes periódicos y específicos con el fin de poner de manifiesto la marcha de distintos indicadores de la gestión a lo largo del ejercicio, facilitando el proceso de toma de decisiones de contenido económico de la Diputación. En este sentido se pondrá en marcha el nuevo sistema de control de Bienes inmuebles con su correspondiente contabilización.

La mejora continua de los procesos, el cumplimiento de los objetivos anuales y la previsión de nuevas actividades a acometer para realizar un correcto control económico y una excelente gestión del presupuesto, conlleva una especialización creciente del personal por lo que se requerirá tanto de una buena formación como de una reorganización de la estructura funcional, lo que se prevee que se desarrollará en el ejercicio.

Además se completará el sistema de publicación tanto en la intranet como en la web externa "bizkaia.net" de toda la normativa con sus respectivos desarrollos que afecten a los ámbitos recogidos en este Programa: Fiscalización, Auditoría, Contabilidad y Presupuestos.